

Kanpaldia

Cristina Soto

Ate zahar baten hotsa entzuten da.

- Lagun 1:* Sssssh... astiro! Laga linterna... Bua, hau da, heldu gara!
- Lagun 2:* Nik ez dut sartu nahi. Ez dut ezer ikusten.
- Lagun 3:* Noski, linterna amatatuta daukazu. Piztu, bada!
- Lagun 4:* Niri beldurra ematen dit...
- Lagun 5:* Sssssh! Etortzea erabaki genuen, eta orain ez dago damaturik. Beraz, isilik egon.
- Lagun 6:* Benga, sar zaitetze, irrikitan nago!

Musika. Linternekin sartzen dira partitura bat eginez.

- Lagun 7:* Leku hau izugarria da! Ezin dut sinetsi! Gainera, hemen egingo dugu lo!
- Lagun 2:* Benetan uste duzu lo egingo dugula? Batek daki zenbat espiritu, arima edo mamu egongo diren hemen!
- Lagun 8:* Kar-kar-kar! Zu bai mamua!
- Lagun 9:* Hemen utzi ahal ditugu gauza guztiak, eta ikertzera joan.
- Lagun 4:* Nik hau pelikuletan ikusi dut askotan, eta badakit zer

*gertatuko den. Banatuko gara eta, apurka-apurka,
desagertzen joango gara.*

*Lagun 10: Kar-kar-kar! Eta nork eramango gaitu? Arimak ala
espirituak? (Denek egiten dute barre, beldur direnak
izan ezik)*

Musika. Linternekin mamuen koreografia egiten dute. Beldur dire-nak
linternekin dena ikusten saiatzen dira.

Lagun 4: Ez da barregarria...

*Lagun 11: Egon zaitezte lasai, ez da ezer gertatuko. Etxe honek
urte asko darama hutsik.*

*Lagun 12: Ni oso nekatuta nago eta laster oheratuko naiz. Gaine-
ra berandu da. (Lo-zakua zabaltzera doa)*

*Lagun 13: Benetan? Horretarako etorri zara? Txepela zara gero!
Koldo, Miren, Nerea! Zergatik ez diguzue esaten zein
den etxe honetako kondaira?*

*Koldo: Bale, eseri zaitezte (Koldo inguratu egiten dute). Orain
dela urte asko, etxe honetan familia bat bizi zen.*

Lagun 4: Familia bat! Familia bat esan du! (Lagun biri izututa)

Denak: Bai... familia bat...

*Koldo: Bi anai-arrebak, gurasoak eta amama. Arraro samarrak
ziren, eta herriko jendearekin ez zuten harremanik, etxean
ematen baitzituzten egunak. Gauz bakarrik irte-ten ziren.
Beltzez janzten ziren, eta oso zurbil zeuden beti; hori dela
eta, herrikoek esaten zuten banpiroak zirela...*

Denak: Uuuuu... (Beldur direnak izan ezik)

*Lagun 3: Elezahar bat da, besterik ez! (Lagun 2k eta 4k baietza
ematen diote)*

*Lagun 1: Bada herriko liburutegian Euskal Herriko palazioei
buruzko liburu bat, eta, bertan, familia horren argazki
bat agertzen da.*

- Lagun 5: Nik ikusita daukat, eta beldurgarriak dira, benetan.*
- Lagun 6: Ni, etortzea erabaki genuenean, liburutegira joan nintzen eta argazki horren fotokopia atera nuen. Hemen daukat. (Erakusten du. Batzuk harritu, eta beste batzuk ikaratu egiten dira)*
- Lagun 7: Mutil horrek begirada arraroa du.*
- Lagun 8: Arraroak, benetan.*
- Lagun 9: Hori itxura misteriotsua!*
- Lagun 10: Baina argazki horretan amama ez da agertzen.*
- Lagun 6: Amamaren argazki bakarra omen dago, baina liburu horretan ez da agertzen.*
- Lagun 11: Tira, segi kontatzen.*
- Lagun 4: Nik ez dut istorio hori entzun nahi.*
- Lagun 12: Ssssh... Niri logurea pasa zait. Segi kontatzen, mesedez!*
- Miren: Gau batean, ikastetxeko 5. mailako umeak hemen ondoan dagoen mendira joan ziren, kanpatzera. Ezkutatetan jolasten zeudela, mutiko bat falta zela kontura-tu ziren eta bila hasi ziren, baina ez zen inondik ageri.*
- Lagun 2: Nori bururatu zaio etxe zahar honetan kanpatzea?*
- Lagun 13: Guztion artean erabaki genuen. Isilik egongo zarete behingoz?*
- Lagun 5: Ez baduzue istorioa entzun nahi, zoazte hortik zehar, ikertzera.*
- Lagun 4: Ez, ez. Isilik egongo gara. Ssssh! (Lagun 2ri)*
- Miren: Orduak eman zituzten bila, baina arrakasta barik. Batzuek pentsatu zuten nahi zuenean bueltatuko zela, eta beste batzuek etxera bueltatu zela, eta lo hartu zuten guztiek.*
- Nerea: Hurrengo egunean, neskato bati bururatu zitzaion etxe honetara hurbiltzea galdetzera, eta, sarreratik hurbil zegoela, galdutako lagunaren jertsea lurtean ikusi zuen. Une hartan, pertsona ilezuri bat ikusi zuen lei-*

- hoan, baina, ez zuen astirik izan aurpegia ikusteko.*
Neska, txarrena susmatuz eta guztiz ikaratuta, kanpa-
lekura itzuli zen, baina jada... ez zegoen inor.
- Lagun 7: Hara! Ume guztiak desagertu ziren? Nola da posible?*
- Lagun 8: Eta zer egin zuen neskatilak, bakarrik zegoela kontura-*
tu zenean?
- Koldo: Herrera itzuli zen, ahal bezain azkar.*
- Miren: Han zeuden ume guztiak, galdutako mutikoaren*
etxean, haren gurasoekin, baina mutikoa ez zen sekula
agertu.
- Lagun 2: Istorioa kontatzea beharrezkoa zela uste duzue? Ho-*
nezkerok ez dut lorik egingo.
- Lagun 9: Orduan, mutiko haren arima hemendik ibiliko da...*
kar-kar-kar!
- Nerea: Hori esaten dute.*
- Lagun 4: Bueno, nahikoa da. Zergatik ez gara zerbaitetan jolasten?*
- Lagun 10: Ezkutaketan jolas gintezke. (Gehienek barre egiten dute)*
- Lagun 12: Ni logure naiz. (Aharrausi egiten)*
- Lagun 11: Berandu da. Hobe lotara bagoaz. (Besteek baietza ema-*
ten diote)
- Lagun 13: A zer aspergarriak zareten...*
- Lagun 1: Ba ni, bihar, esnatu bezain pronto, ikertzera joango naiz.*
- Lagun 3: Baita ni ere.*
- Lagun 5, 6, 7: Eta ni! (Ez batera)*

Lo-zakuak ateratzen dituzte, eta oheratzen dira. Lagun 2k eta 4k elkarrekin egingo dute lo. Musika eta koreografia.

- Lagun 8: (Aharrausika) Txiza egin behar dut (Irteten da)*
(Lagun 2 eta 4 esna daude. Oraindik ez dira lokartu)
- Lagun 2: Kontuz ibili!*

Lagun 8 ikaratuta bueltatzen da.

- Lagun 8: Ikusi duzue hori?!*
Lagun 7: Ssssh, lo gaude! Jolasten, beste leku batera!
Lagun 8: Barkatu. (Xuxurlatzen) Ikusi duzue itzal hori?
Lagun 4: Txantxetan zaude?
Lagun 8: Ez. Kontua da itzal bat ikusi dudala, baina arin mugitu da eta ez dakit zer izan den.
Lagun 2: Ezzzzzzzz!
Lagun 5: Mesedez, isil zaitezte!
Lagun 8: Barkatu. (Oheratzen da)
Lagun 4: Ez dakit zergatik etorri garen hona...

Koldo irteten da. Isilune luze baten ondoren Lagun 13 ura edatera altxatzen da.

- Lagun 13: Egarri naiz. (Botila hartzen du eta, edaten dagoela, zerbait ikusten du) Zer izan da hori? Ikusi duzue?*
Lagun 8,2,4: Bai...
Lagun 3: Zer gertatzen da?
Lagun 13: Itzal bat ikusi dugula.
Lagun 8: Jada bi ikusi ditugu.
Lagun 3: Zer?! Benetan?!
Lagun 1: Gutariko norbait izango da. (Guztiak daude, zenbatzen duen bitartean)
Lagun 9: Baina zer demontre gertatzen zaizue?
Lagun 10: Zuekin ezinezkoa da lo egitea.
Lagun 3: Itzalak daude!
Lagun 2: Mamuak daude!
Lagun 10: Bai zera!
Lagun 1: Koldo falta da!
Lagun 4: Ikusten? Banekien. Desagertzen hasi gara!

Koldo sartzen da albo batetik.

- Koldo:* Zer egiten duzue esna?
Lagun 10: Hauek pentsatzen dute mamuak daudela... kar-kar-kar!
Lagun ?: Zu izan zara! Gabon guztioi.
Lagun 13: Nondik zatoz?
Koldo: Kaka egitera joan naiz. Dena esan behar da....
Lagun 5: Dena konponduta. Orain isildu zaitezte, mesedez. Gabon.
(Oheratzen dira. Lo geratzen direnean argi bat ikusten da)
Lagun 6: Nor ari da argiekin jolasten?
Lagun 7: Zer demontre gertatzen da orain? (Argiak ikusten ditu)
Nor dago hor?
Lagun 11: Nor dago, non? Argi batzuk, non?
Miren: Egia da! Eta argi horiek? Nerea, Nerea, begira!
Nerea: Zer gertatzen da?
Lagun 12: Denok gaude gure lo-zakuetan sartuta... orduan...
Lagun 8: Lehen, itzalak; orain, argi arraro batzuk...
Lagun 2: Zer dator gero?
Nerea: Eta ez dira kanpoko kotxe baten argiak izango?
Koldo: Hemen ez dago errepiderik. Mendian gaude, Nerea.
Lagun 5: Egia da. Hona ezin da kotxez etorri, ez dago modurik.
Lagun 7: Familia horren arimak izango direla uste duzue?
Lagun 6: Familiakoak haserre daudela ematen du...
Miren: Hemengoa, familia normala zen.
Lagun 3: Normala, normala...
Miren: Larruazaleko gaixotasun bat zuten, besterik ez.
Nerea: Horregatik ez ziren irtetn. Baina hemen zerbait arraroa gertatzen ari da. Eta ez zait batere gustatzen...
Lagun 3: Begiratu hara! Orain handik dator argia!
Lagun 4: Ai ama!!

Bat-batean, ahots bat entzuten da: uuuuu, uuuu... Gehienek oihuka-tu egiten dute.

Lagun 9: Alde hemendik!

Lagun 10: Alde hemendik!

Denak: Alde hemendik!

Berriro entzuten da ahotsa, baina askoz ere altuago eta gertuago.

Lagun 8: Mamuaaaaaak!

Koldo: Goazen hemendik!!!

Bi mamu sartzen dira, eta denek alde egiten dute, guztiz beldurtuta. Agertokia utsik geratzen demean, bi pertsonaiak mamuen mozo-erroak kentzen dituzte.

Mamu 1: Kar-kar-kar! Zein dibertigarria den hau, mamu batzuk garela sinetsi dute! (Mamuarena egiten dute)

Mamu 2: Kar-kar-kar! Guztiz izututa joan dira! Oso dibertigarria da hau, inoiz egin dudan lanik dibertigarriena.

Mamu 1: Ekarri bosteko hori! Lortu dugu! Ikaratu ditugu eta ez dira inoiz gehiago bakarrik kanpatzera joango.

Mamu 2: Ezta etxe honetara etorriko ere! Kar-kar-kar!

Mamu 1: Dena atera da gurasoek nahi zuten bezala. Ondo atera zaigu plana!

Mamu 2: Goazen herrira. Gurasoak poz-pozik geratuko dira umeak ikustean. Apartak gara! (Irteten dira)

AMAIERA.

